

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak gidatzean mugikorra erabiltzearen aurkako kanpaina zabaldu du

“Mugikorrek ez du presarik; zure bizitza da lehena” lemak planteatzen duen gogoetaren bitartez, argi utzi nahi du ez dagoela bizitza arriskatuz erantzun beharreko mezurik

Ostirala, 2018.eko ekainak 22

Nafarroako Gobernuak gidatzean gerta daitezkeen deskuiduen kontrako kanpaina instituzionala abiarazi du gaur, bereziki gidarientzat, baina baita oinezko eta txirrindulariei zuzenduta ere. Kanpainaren lemak (*Mugikorrek ez du presarik; zure bizitza da lehena*) gogoeta eragin nahi du gidatzean mugikorra irakurri edo mezu bat idazteak dakarren arriskuaz.



Kanpaina zabaltzeko, prentsa idatzian argitaratutako iragarkiez gain, sare sozialetarako [bideoak](#) eta irratirako iragarkiak ere erabiliko dira, izan ere, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, gidatzean gertaturiko deskuiduak dira Estatuko heriotz-istripuen kausa nagusia, ia ezbeharren herena (% 32, 2017an) barne hartuz eta abiadura desegokiari (% 26), alkoholari (% 12) eta drogei (% 11) aurea hartuz.

Deskuidu horietan bestelako kausak egon daitezkeen arren (nabigatzailearen maneioa, entzungailuen erabilpena, etab.), intuizio bidez susma daiteke ohikoena mugikorraren erabilpena dela, eta bereziki whatsapp eta bestelako mezularitza-zerbitzuen erabilpena. Susmoa Axa eta “Ponle Freno” gisako txostenetan egiaztatu da. Horien arabera, inkestatutako pertsonen % 25ek aitortu du ez duela esku libreen gailua erabiltzen telefonoz hitz egiteko, eta % 18k mezuei erantzun ohi diela.

Kanpaina prentsaurrekoan aurkeztu dute gaur goizean Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumontek, Barneko zuzendari nagusi Agustín Gastaminzak eta Trafiko eta Bide-Segurtasunaren Ataleko buru Eugenio Vilak.

Kanpaina instituzional honekin bat eginik, Nafarroako Gobernuak deskuiduen aurkako trafiko-kanpaina abiaraziko du astelehenean, Nafarroako Bide-Segurtasunerako Estrategiari atxikitako urteko planaren barruan. Urteko plana Nafarroako Gobernuaren Segurtasunari buruzko webgune berrian kontsulta daiteke, navarra.es atarian.

Mugikorrek erreakzionatzeko denbora laburtzen du

Trafiko eta Bide-Segurtasunaren Ataleko buru Eugenio Vilaren esanetan, deskuiduei egotz dakizkiekeen istripuen % 32ko portzentajeari,

kausa argitu ezinik gelditu diren bestelako kasuak ere gaineratu beharko litzaizkieke: “Ezusteko zenbait bide-irteeratan eta beste ibilgailu batzuen kontrako talka askotan ez dira antzematen abiadura, kontrola eta ikusgaitasun murrizta gisako faktoreak, eta ondorioz, deskuiduren bat izan dela susmatzen da, seguraski mugikorrarekin lotutakoa.”

Horrekin batera, litekeena da, kausa zuzena izan gabe, mugikorra hainbat harrapaketa eta istripuren faktore eragilea izatea, ustekabea saihesteko behar den erreakzio-denbora deuseztatzeko moduko deskuidua eragin dezakeen heinean.

Bide publikoan mugikorra erabiltzeko ohituraren ondorioz, halaber, oinezko asko idatzizko solasaldietan deskuidatuta ibili ohi dira semaforoa edo zebrabidea zeharkatzen duten bitartean.

Mugikorraren erabilpenak hiru deskuidu mota ere eragin ditzake: ikusmenekoa, begiek pantaila irakurtzen duten bitartean; kognitiboa, adimena mezua lantzen diharduelarik, eta eskuzkoa, atzamarrek teklei eragitean eskuak bolantetik aldentzen direlarik.

Kontuan izan behar da aurten deskuidoak saihesteko egin diren kanpainetan, 194 pertsona salatu zituztela apirilean eta beste 174 otsailean, deskuiduen kontrolari atxikitako arau-hausteak leporatuta: mugikorraren erabilpena; nabigatzailearen maneia, entzungailuen erabilpena, etab.

Horrez gain, iaz, 3.000 gidari baino gehiago zigortu zituzten gidatzean mugikorra erabiltzeagatik.